

IZENBURUA: Adierazpen Instituzionalerako proposamena, Haurren Aurkako Sexu-abusua Prebenitzeko Nazioarteko Eguna dela eta

Adierazpen Instituzionala

Kontuan hartuta gobernuek eta gizarte zibileko erakundeek paper garrantzitsua izan behar dutela haurren eskubideak sustatzeko eta errespetatzeko, Haurren Eskubideen Hitzarmenean (19. eta 34. artikulua) berariaz adierazten den bezala, eta haurrak abusuetatik babesten laguntzeko, WWSFk, Emakumeen Munduko Gailurra Fundazioak 2000. urtean, Haurren aurkako Abusuak Prebenitzeko Munduko Eguna abiarazi zuen, urtero, azaroaren 19an ospatzeko, Haurren Eskubideen Egunaren sinergian (azaroak 20) ak. Egun horren xedea da haurren aurkako sexu-abusuak badaudela agerraraztea eta prebentzio programak hedatzeko dagoen premia handiaz ohartaraztea. Euskadi mailan, Eusko Legebiltzarreko Giza Eskubideen Batzordearen barruan dago Haurren aurkako sexu-abusuei heltzeko ponentzia, biktimen prebentziorako, detekzio goiztiarrerako eta babeserako elementuak identifikatzeko, ez errepikatzen eta erreparatzeko bermeak eskaintzeko. Gainera, "Euskadin haur eta nerabeen abusu eta sexu-esplotazio kasuetan jarduteko jarraibideen gida" bat dago, Arartekok egina. Baina haurtzaroko sexu-abusuen aurrean erakundeek emandako erantzunen azterketan eta hobekuntzan aurrera egin den arren, lan asko dago egiteko oraindik.

Haur eta nerabeen aurkako indarkeria eta tratu txarrak, batez ere sexualak badira, arazo unibertsala eta kezagarria dira. Aldi berean, pertsonentzako indarkeriarik suntsitzailenetako bat da, eta horren ondorioek bizitza osoan pairatuko dituzte. Euskal instituzioetatik badakigu haurren sexu-abusuak berekin dakarrela desberdintasun- edo botere-asimetria-testuingurua, normalean engainuaren, indarraren, gezurraren edo manipulazioaren bidez gauzatzen dena. Nolanahi ere, haurren edo nerabeen eskubideen urraketa larria da.

Laguntza terapeutiko psikologikorik ezaz gain (hori funtsezkoa da), maila judizialean egoera hau gertatzen da: biktima, gehienetan, urte asko igarota bakarrik ausartzen da salaketa jartzera, delitua preskribatuta dagoela. Haurrak eta nerabeak indarkeriaren aurrean erabat babesteari buruzko ekainaren 4ko 8/2021 Lege Organikoak jarduerarizpidea aldatuko du, delitu horien preskripzio-denbora luzatuz. Baina, zalantzarik gabe, haurren sexu-abusuen inguruko funtsezko problematika, zeina gainerako indarkerien oinarrian baitago, oso errealitate isildua da oraindik. Abusu gehienak familia barrukoak edo gertuko zirkulukoak dira; izan ere, horrelakoak dira abusuen %88,5, ANAR Fundazioak Espainian 2008tik 2019ra bitartean haurtzaroan izandako sexu-abusuen bilakaerari buruz egindako ikerketaren arabera, eta urte askoan

gordetzen dira, isiltasun eta ezkatutze tradizio luzean, eta gero eta beharrezkoagoa da gure gizartearen eszena politikoan eta publikoan azaleraztea.

OMS/OME Osasunaren Mundu Erakundearen arabera, bost adingabetatik batek sexu-abusua jasaten du 17 urte bete baino lehen. Europan, AEBetan eta Kanadan, haurren %20k jasan dituzte sexu-abusuak. Euskadin, 1.500 adingabek jasaten dute indarkeria urtero, zigor fisikoaren, sexu-indarkeriaren edo ziberjazarpenaren biktima izanik. Estatistika horietako gehienak agintarien aurrean salatutako kasuetan oinarritzen dira, eta horrek sexu-abusuen errealitatea gutxieteko arazo handia sortzen du, gizarte-arazo horrekin dagoen isiltasun eta sekretismoaren fenomeno dela eta. Haurtzaroko sexu-abusuen zifrak askoz ere handiagoak direla jakinda, funtsezkoa da azterketak ikuspegi integral batetik egitea, eta, batez ere, ikuspegi feministatik egitea, zeharkakoak, problematikaren tamaina neurtu ahal izateko eta behar den premiaz jardun ahal izateko.

Haurren sexu-abusuak dimentsio asko ditu, eta administrazio hainbat agenteren eta organoren esku-hartzea eskatzen du. Horrez gain, haurrak eta nerabeak dauden erakunde publiko edo zerbitzu guztien inplikazioaz gain, horietan izaera horretako portaerak detektatu eta erreparatu behar dira.

- Irungo Udalak ezinbestekotzat jotzen dute arreta jartzea bitartekoak handiagotzea osasun-sistemak, hezkuntza-sistemak, erakunde-sistemak eta gizarte-sistemak problematika hori identifikatzeko eta hainbat motatako erreparazio-mekanismoak abian jartzeko. Horrela, haurtzaroan sexu-abusuak jasan dituzten orok erreparazioerako eskubidea gauzatu ahal izateko, eta prebentziozko neurriak abian daudela ziurtatzeko; neurri horiek baliagarriak izan daitezela horrelako kasuak saihesteko eta problematika hori ikusarazteaz gain, eta gizartea kontzientziatzeko ere bai.

- Irungo Udalak, Konstituzioak eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenak bezala, adingabeak eskubideen subjektu titular gisa aitortzen dituzte, baita ahalik eta babes handiena merezi duten subjektu gisa ere.

- Irungo Udalak sentibilizazio-kanpainak egin behar direla azpimarratzen dute, gizartea kontzientziatzeko, goizago detektatzeko eta indarkeria-egoera horietan goiz esku hartzeko. Adingabeen hurbileko inguruneetako pertsonen bereziki zuzendutako kanpainak, etxeko edo eskolako indarkeriaren zantzuak identifikatzeko tresnak eskainiz, batez ere haurren indarkeriarekin lotuta daudenak. Horrela, pertsona horiek guztiek gizarte-arazo larri hori identifikatu eta alarma martxan jarri ahal izango dute.

- Irungo Udalak azpimarratzen dute garrantzitsua dela gaur egun dauden baliabideak ezagutaraztea, egoera horiek identifikatzen dituztenek eta abusuak eta tratu txarrak jasaten dituzten biktimen eskura izan ditzaten dauden baliabideak, eta babestuta eta

lagunduta senti daitezten. Horretarako, funtsezkoa da Gipuzkoako Foru Aldundiak bere eskumenekoak diren araudia, arreta-ereduak eta zerbitzuak egokitzea Arartekok egindako jarraibideetara, hain zuzen nere haurrak sexu-abusuen aurrean prebenitzeko, arreta emateko eta babesteko.

- Irungo Udalak beraien inplikazioa eskatzen diete erakunde guztiei, haurren abusuaren seinaleak prebenitzeko eta identifikatzeko, bereziki sexu-abusua helduen eta haurren arteko elkarreagina dagoen ingurune guztietan, ahalik eta azkarren identifikatzeko neurriak hartu ahal izateko eta ondorengo kalteak mugatzeko.
- Irungo Udalak gogorarazten dute beharrezkoa dela erakunde guztiek gai hori hezkuntza-sistemaren barruko ikasketa-programetan sartzea, haurren abusua antzemateko tresnak eskura izan ditzaten, batez ere medikuek, hezitzaileek eta adingabeen zein adingabeen zaintzan inplikatutako langile guztiek.
- Irungo Udalak babesa ematen diote Save The Childrenen eskutik Euskadira iristen den "Barnahus" izeneko sexu-abusuen biktima diren adingabeei arreta integrala emateko proiektu pilotuari, euskal errealitatera egokitzeke lehen urrats gisa, eta espazio berean biltzen dituzte kasu horiek esku hartzen duten sail guztiak, judizialak zein soziosanitarioak.
- Irungo Udalak adierazten dute udalen, foru aldundien eta Eusko Jaurlaritzaren arteko lankidetzeta eta koordinazioa bultzatu nahi dutela sexu-abusua eta hurrei zuzendutako tratu txarrak prebenitzen dituzten elkarrekin batera. Helburua da ekimenak garatzea eta beharrezko baliabideak bermatzea, arreta egokia, kalitatezkoa eta eskubide guztietara ahalbidetzea bermatuko duena, egoera horiek prebenitu, detektatu eta arreta egokia eskaini ahal izateko, arretarako eta babeserako protokolo eta neurri eraginkor guztiak abian jarri.
- Irungo Udalak babesa ematen die haurren sexu-abusuen biktimei eta aitortu eta balioesten dute arazo larri hori desagerrarazteko inplikatutako erakunde eta elkarte guztien ahalegina eta lana, eta babesa emateko dei egiten dute.